

# M<sup>LH3</sup>



*Izen-deiturak*

*Ikastetxea*

*Taldea*

*Herria*

*Data*

# 1. zatia



Proba honen lehen zatia egiteko  
45 minutu dituzu.

## Matematikako gaitasuna

LHko 3. maila

2015-2016

## Argibideak

Lehen ariketan, irakasleak ozenki irakurriko ditu problema batzuk, bata bestearen atzetik eta denbora utziko dizu zuk erantzuna dagokion hutsunean idatz dezazun.

Ondoren, hainbat galdera mota aurkituko dituzu. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

**Zenbat dira  $2 + 5$ ?**

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

**Zenbat dira  $2 + 5$ ?**

- A. 2
- A. 6
- B. 7
- C. 11

Beste galdera batzuetan, aldiz, puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

**Esan zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangelu batek.**

.....



## 1. Kalkulu mentaleko ariketa

	Erantzuna
A kalkulua	
B kalkulua	
C kalkulua	
D kalkulua	
E kalkulua	
F kalkulua	

# Lotería zenbakiak

Irakasleak loteria dezimo batzuk ekarri ditu klasera haiekin ariketak egiteko.

2. Begiratu loteria zenbaki honetako zifrak. 4 zifraren posizio-balioa da...

- A. 40
- B. 400
- C. 4000
- D. 40000



3. 5 zifraren posizio-balioa da...

- A. 50
- B. 500
- C. 5000
- D. 50000



4. Osatu gorrian dauden laukiak eta asmatu dauzkagun loteria zenbakiak.

A number line is shown with tick marks. Two numbers are labeled: 13860 and 13870. Below the number line, there are two red-outlined boxes for writing. To the left, there are two overlapping images of lottery tickets. The top one is for the draw of January 6, 2014, with the number 2/14. The bottom one is for the draw of January 6, 2014, with the number 2/14.

5. Asmatu zein den loteria dezimo honen zenbakia, ematen dizkizugun arrastoak erabiliz,:

- Zifra guztiak desberdinak dira.
- Posible den 5 zifraiko zenbakirik txikiena da.



6. Begiratu irudiko loteria zenbakia. Aurreko eta atzeko zenbakiak dira...

- A. 19890 eta 20000
- B. 19898 eta 20000
- C. 19898 eta 19990
- D. 19898 eta 19900



# Eragiketak

Orain zenbait eragiketa egin behar dituzu.



7. Osatu segida:

		8300	8500	8700		
--	--	------	------	------	--	--

8. Egin zatiketa hau:

$$\begin{array}{r} 9 \ 6 \ 4 \ | \ 4 \\ \hline \end{array}$$

9. Osatu kenketa hau.

$$\begin{array}{r} 3 \ 4 \ 8 \ 7 \\ - \\ \hline 1 \ 7 \ 4 \ 5 \end{array}$$

10. Begiratu abezedarioa.

A B C D E F G H I J K L M N Ñ O P Q R S T U V W X Y Z

Zer letra ageri da hogeigarren tokian? .....

# Futbola

Markos eta Luis bere lagunekin jolasean ari dira futbol talde batean.



**11.** Lehen sailkatuak bezainbeste gol izateko, 135 gol gehiago behar ditugu. Haiek 417 gol sartu badituzte, zenbat gol sartu ditu nire taldeak?

Guk orain arte ..... gol sartu ditugu.

**12.** Taldeak elastikoak, galtzak eta galtzerdiak erosi ditu. Elastikoek 60 € balio dute, galtzek elastikoek baino 15 € gutxiago eta galtzerdiek 20 €. Zenbat euro balio du jokalaria baten ekipazioak?




Ekipazioak ..... euro balio du.



**13. Entrenamendu batean entrenatzaileak 6 jokalariren artean 34 puxika banatu ditu eta 4 sobera gelditu dira. Banaketa ongi egin den egiaztatzeko, zer egin behar duzu?**

- A. 34 zati 6 gehi 5 egin
- B. 34 zati 4 gehi 6 egin
- C. 6 bider 5 gehi 4 egin
- D. 5 bider 4 gehi 6 egin




**14. Markosek 12 partida jokatu ditu. Koldok jokatu dituen partidak Markosek jokatutakoak baino 3 aldiz gehiago izan dira. Zenbat partida jokatu ditu Koldok?**



Koldok ..... partida jokatu ditu

**15. Begiratu taldeak markatutako golak ageri den taula.**



**a) Taldeak, osotara, zenbat gol sartu ditu?**

.....

**b) Zein bi hilabetetan sartu ditu gol gehien taldeak?**

.....

**c) Gol kopuruari dagokionez, zenbateko aldea dago otsailaren eta apirilaren artean?**

.....


**d) Martxoko eta apirileko golak batzen baditugu, zer hilabetek du kopuru horren erdia?**

.....

**e) Zer bi hilabetek zenbatzen dute martxoko gol kopuruaren bikoitza?**

16. Begiratu datuen taula eta irudikatu grafikoan.

	Sartutako gol kopurua
Iraila	3
Urria	10
Azaroa	15
Abendua	8



**LEHEN ZATIA BUKATU DUZU**

**Ez zaituz hurrengo orrialdera pasatu irakasleak esan arte.**

# M

LH3



*Izen-deiturak*

*Ikastetxea*

*Taldea*

*Herria*

*Data*

## 2. zatia



Proba honen bigarren zatia egiteko 45 minutu dituzu.


## Matematikako gaitasuna

LHko 3. maila

2015-2016

# Bizikletan eskolara

Ana egunero joaten da bizikletan eskolara. Batzuetan supermerkatuko bidetik joaten da eta beste batzuetan liburutegiko bidetik. Begiratu irudia:



17. Zenbat metro egiten ditu Anak etxetik eskolara joateko, supermerkatutik pasatuz?

Erantzuna: Anak ..... metro egiten ditu.

**18.** Zenbat metro egiten ditu Anak etxetik eskolara joateko, liburutegitik pasatuz?

Erantzuna: Anak ..... metro egiten ditu.

**19.** Osotara, zer distantzia egiten du Anak eskolara supermerkatuko bidetik joaten bada eta liburutegiko bidetik itzultzen bada?

Erantzuna: Osotara ..... egiten ditu.

**20.** Anak etxean irin pakete bat eta kubo bat ditu. Zer neurri unitate erabiltzen da bakoitzaren edukia neurtzeko?



- A. Irina gramotan eta kuboaren edukia litrotan.
- B. Irina gramotan eta kuboaren edukia zentimetrotan.
- C. Irina litrotan eta kuboaren edukia metrotan
- D. Irina metrotan eta kuboaren edukia litrotan.

**21.** Ana eskolatik 16:45ean atera da eta etxera 18:30ean itzuli da. Zenbat denbora behar izan du etxera iristeko?


Erantzuna: Anak behar izan duen denbora da.....

22. Anaren matematika liburuak gutxi gorabehera pisu hau du:

- A. 10 gramo
- B. 40 gramo
- C. 400 gramo
- D. 1400 gramo



23. Supermerkatuko erlojuan 14:45ak dira. Erlojuetako zeinetan ageri da ordu hori?




- A. A erlojuan
- B. B erlojuan
- C. C erlojuan
- D. D erlojuan



24. Anak eta bere amak sei freskagarri erosi dituzte. Osotara, zenbat zentilitro daude?

- A. 66 zentilitro
- B. 132 zentilitro
- C. 198 zentilitro
- D. 264 zentilitro



25. Eskolak 6 liburuko bilduma erosi du liburutegirako eta 90 euro ordaindu du. Liburu guztiek prezio bera badute, zenbat balio du liburu bakoitzak?



Erantzuna: liburu bakoitzak ..... euro balio du.

# Erosketak egiten plazan

Iker eta bere ama erosketak egitera atera dira. Iker jolasean ari da bere lehengusuekin plazan.



26. Ikerrek poltsikoan hiru txanpon ditu. Osotara, 160 zentimo ditu. Zer txanpon ditu Ikerrek poltsikoan?



Erantzuna: Ikerrek poltsikoan dituen 3 txanponak dira.....

.....

.....

**27.** Ikerren amak galtza bat eta bi elastiko erosi ditu. Erosketa 50 euroko billete batekin eta 20 euroko beste billete batekin ordaindu du. Zenbat diru itzuliko diote? Idatzi egiten dituzun kalkuluak.



Erantzuna: Ikerren amari ..... euro itzuliko dizkiote.

**28.** Iker eta bere lehengusuak jolasean ari dira plazan. Asmatu irudiko 3 haurren izenak zein diren, ematen dizkizugun arrastoak erabiliz:

- Iker Sergioren eta Iñigoren atzean dago.
- Sergio Iñigoren aurrean dago.




.....


.....

.....

29. Marraztu irudi simetrikoa:



30. Irudi honetan, osotara, zenbat triangelu daude?



- A. 2 triangelu
- B. 3 triangelu
- C. 4 triangelu
- D. 5 triangelu